

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Euskara ikasi eta hobetzeko 2024rako laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak

Udal honek, 2024ko irailaren 12ko 2024/524 Alkatetza Dekretuaren bidez, euskara ikasi eta hobetzeko 2024rako laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi ditu (2023ko urritik -hura barne- 2024ko irailera arte -hura barne- egindako ikastaroek jasoko dute dirulaguntza).

Bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, oinarri horiek argitaratzen dira, guztiek haien berri izan dezaten.

Euskara ikasi eta hobetzeko 2024rako laguntzak emateko oinarri arautzaileak

– 1. artikulua. Xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da Aiarako Udalak 2024. urtean Aiarako udalerrian erroldatuta dauden eta bertan bizi diren pertsonen euskara ikasi eta hobetzeko laguntzak emateko prozedura arautzea.

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

Laguntzak emateko diruz lagun daitekeen gastua hartuko da kontuan, eta araudi honetan ezarritako haren ehuneko emango da.

Diruz lagundu daitekeen gastua izango da eskolei dagokien matrikularen zenbatekoa; inola ere ez da dirulaguntzarik emango mantenurako, ostaturako, garraiorako, materialerako etab., "Egonaldiak familia euskaldunetan" programarako ezarritakoa izan ezik.

Dirulaguntza hauek euskara ikasi eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantza mendeko egongo dira. Ordenantza hori Aiarako Udalak onetsi eta 2021eko irailaren 24an argitaratu zen ALHAOn (109. zk.).

Halaber, hauen pean ere egongo dira: Aiarako Udalak onetsitako udal dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferezentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Toki Korporazioen Zerbitzuen araudia eta dagokien legedi osagarri guztia.

– 2. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Kontzeptu hori dela eta eman beharreko laguntzen zenbatekoa ez da, guztira, 5.901,14 euro baino gehiago izango eta 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuaren 335.480.000 partidaren kontura finantzatuko da.

– 3. artikulua. Laguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzaren muga

a) Zenbateko hauek izango dira dirulaguntzaren xede:

– HABEk homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketak: ehuneko 100.

– Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz antolatutako ikaskuntza taldeak: ehuneko 100.

– "Egonaldiak familia euskaldunetan" programako egonaldiak: ehuneko 100.

Ikastaroen kasuan, laguntzaren ehunekoa udal honi urteko dirulaguntza eskatu aurreko urteko urritik (hura barne) dirulaguntza eskatzen den urteko irailera arte (hura barne) egindako ikastaroaren edo ikastaroen matrikulari dagokio.

Udalaren urteko aurrekontuetan xede horretarako partidan dagoen kopurua egiaztatutako eskaera guztiak betetzeko aski ez izatekotan, lehentasuna izango du zenbatekoaren ehuneko 100 emateak langabezia egoera frogagarri eta egiaztatuan dauden eskatzaileei eta, ondoren, proportziorako banaketa egingo da, baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiak matrikularen kostuari dagokion proportziorako ehuneko bera jaso dezaten laguntza moduan.

b) HABEk homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketen kasuan, A1etik C2ra arteko euskalduntze prozesuko maila bakoitzagatik, hiru urte edo ikasturteko al-dian eman ahal izango da dirulaguntza, ikasmaila gainditu izana egiaztatuta. "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, gehienez ere bi hilabeteko egonaldia lagunduko da diruz pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori gehienez 5 urteko epean bete beharko da. "Egonaldiak" programako egonaldi baterako dirulaguntza egonaldia egin zen urteari dagokion eskaera egiteko epean eskatu ahal izango da bakarrik.

c) Beste erakunde batzuen laguntzak edo dirulaguntzak egonez gero, kasu bakoitzerako hitzartutako ehunekoa emango da, beste erakundeen dirulaguntza jaso ez duen matrikularen kostuari dagokion zatia aplikatuta.

d) Barnetegi batean ikasi bada, klaseetarako baino ez da emango dirulaguntza, eta ikasleak ordainduko ditu ostatua eta mantenua.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik xede bererako lortutakoak barne, ezingo du inola ere gainditu onuradunak egindako ikastaroaren kos-tua. Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordeak onetsitako dirulaguntza berraztertu ahal izango du, beste erakunde batzuek beren laguntzak eman ondoren, edozein motatako gainfinantzaketa galarazteko.

– 4. artikulua. Onuradunak. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta frogatzeko modua

Laguntzen onuradun izan daitezke honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez jarraian Aiarako uda-lerrian erroldatuta egotea, eta udalerrri horretako egoiliarra izatea.

b) Azterketa egiteko aldia heltzean 16 urte baino gehiago izatea eta, "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, programa horretan bertan parte hartu ahal izateko eza-rritako gutxienezko adina izatea.

c) A1etik C2ra arteko mailetan (biak barne) euskara ikasteko edo euskara maila hobetzeko ikastaroetan matrikulatuta egotea HABEk homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentro-ren batean, edo udalerrian bertan udalaren partaidetzaz antolatzen diren ikaskuntza taldeetan.

d) Barnetegi batean ikasi bada, klaseetarako baino ez da dirulaguntzarik emango, eta ikas-leak ordainduko ditu ostatua eta mantenua. Beraz, kasu horietan, udalari aurkezten zaion ma-trikularen ziurtagirian banakatuta agertu beharko dira irakaskuntza gastuak eta mantenu eta ostatukoak.

e) Homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikastaroetarako emango da dirulaguntza. Ziurtagiriek adierazi beharko dute egindako ikasmaila gainditu den ala ez, eta bertaratze kopurua, ikasle bakoitzak izandako eskola ordu kopurua eta bertaratze ordu kopurua adierazita. Ikasleak gutxienez ehuneko 75eko bertaratzea eduki behar du dirulaguntza jaso ahal izateko.

Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz antolatzen diren ikaskuntza taldeen kasuan, es-kola orduen gutxienez ehuneko 75era joan beharko da dirulaguntza eskuratu ahal izateko, eta Aiarako Kuadrillako euskara teknikariek emandako ziurtagiriek maila gainditu duten ala ez adierazteaz gain, bertaratze orokorrari buruzko informazioa jasoko dute.

f) "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, gehienez ere bi hilabeteko egonaldia lagunduko da diruz pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori gehienez 5 urteko epean bete beharko da.

g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Aiarako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekaritza sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden datuak egiaztatu eta kontsultatzeko eragiketak egingo ditu, salbu eta interesdunak horren aurka da-goela adierazten badu (kasu horretan, aipatutako erakundeen agiriak aurkeztu beharko ditu).

h) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea.

i) Eskatzaileak egiaztatzen baldin badu, baldintza orokorrak betetzeaz gainera, langabezian egon dela ikastaroak iraun duen egunetarik gutxienez erdietan (dagokion euskaltegiak ziurtatutako ikastaroaren hasiera eta amaiera egun ofizialen artean zenbatuta), diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 100 jasoko du.

j) Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako jaso daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, baina ezin da gainfinantzaketarik izan. Eskaerarekin batera xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza eskaerarik egin den jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko da eta, eskaerarik egin bada, horien fotokopia konpultsatuak nahiz ebazpenen fotokopia konpultsatuak (onetsia eta kopurua zehaztuta / ukatua) edo ebazpenaren zain egotearen adierazpena aurkeztu beharko dira. Azken kasu horretan, eskatzaileek udaletxean aurkeztu beharko dute dirulaguntza emateko dagokion ebazpena, hura jasotzen dutenean. Baldintza hori ez betetzea, emandako dirulaguntza errebotatzeko arrazoiz izango da. Beste dirulaguntza batzuen jarraipena egingo da berariaz eta onuradunak eskatzen zaizkion datuak eman beharko ditu.

k) Dirulaguntza hau eskatzen dutenek orobat eskatu beharko dituzte beste erakunde batzuek (Arabako Foru Aldundia, HABE, Eusko Jaurlaritza etab.) deitu eta aplikagarri zaizkien laguntzak.

l) Hiru urte edo hiru ikasturte izango dira ikasmaila bakoitza gainditzeko. Aldi hori igarota, ez da udalaren dirulaguntzarik emango maila bera egin izana egiaztatzeagatik.

m) Eskaeran jaso beharreko datuen edo agiriren bat ez bada ematen edo faltsua bada, eskaera balio gabetu egingo da; horrez gainera, egileei erantzukizuna eskatu ahal izango zaie. Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

– 5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Eskaera orria, eskatutako datu guztiekin, bai eta beste dirulaguntza eskaera batzuk egin edo ez egin izanari buruzko adierazpena ere, eta, eskaerarik aurkeztu bada, eskaeraren fotokopia konpultsatua. Eskaerak erantzuna izan badu, ebazpenaren fotokopia konpultsatua (emandako kopurua edo ukatzea); ebazpenaren zain egonez gero, horri buruzko adierazpena.

b) Eskatzailearen nortasun agiri nazionalaren fotokopia.

c) Euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentro homologatuaren jatorrizko ziurtagiriak. Datu hauek jaso behar dituzte ikasturtean egindako maila bakoitzari dagokionez: hasiera eta amaiera data; emandako eskola orduak, horietatik zenbatean egon den ikaslea eta asistentziaren ehunekoa; matrikularen kostua, emandako maila bakoitzaren arabera banakatuta, eta ikasleak dagokion maila gainditu duen ala ez. Barnetegi batera joanez gero, kostua honela banakatuta aurkeztu beharko da: batetik, eskolen kostu osoa (emandako maila bakoitzaren kostua banakatuta), eta, bestetik, ostatuaren eta mantenuaren kostua.

– Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz antolatzen diren ikaskuntza taldeen jatorrizko ziurtagiriak, Aiarako Kuadrillako euskara teknikariek emanak. Datu hauek jaso behar dituzte: ikastaroaren hasiera eta amaiera data; egindako mailak; emandako eskola orduak, horietatik zenbatean egon den ikaslea eta asistentziaren ehuneko osoa; matrikularen kostu osoa, eta dagokion maila gainditu den ala ez.

d) Matrikula ordaindu dela frogatzen duen agiria (jatorrizkoa), banku entitate batek emana.

e) Administrazio eskudunak egindako ziurtagiria, eskatzaileak Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, edo, hala badagokio, datuak egiaztatzeko edo datuak kontsultatzeari aurka egiteko dokumentua (l. eranskina). Berariaz aurka eginez gero, aipatutako erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

f) Ikastaroa egin bitartean izandako lan bizitzaren egiaztagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emana, baldin eta eskatzaileek, ikastaroaren erdia baino gehiago langabezian egoteagatik, lehen-tasuna badute zenbatekoaren ehuneko 100 jasotzeko, oinarri hauetako 3. artikulua araberara.

– 6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta horiekin batera aurkeztu beharreko agiriak Aiarako udaletxean aurkeztu beharko dira 2024ko urriaren 1etik 31ra bitartean, eta eskaera bakoitzean 2023ko urritik 2024ko irailera (biak barne) egindako ikastaroa edo ikastaroak soilik sartu ahal izango dira. "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, 2024an egindako egonaldietarako soilik eskatu ahal izango da dirulaguntza.

Aurkeztutako agirietan irregulartasun edo hutsen bat baldin badago, 10 egun izango dira hura zuzentzeko, udalak errekerimendua egiten duenetik aurrera. Epe hori igarotakoan eskaera zuzendu ez bada, artxibatu egingo da eta administrazio balioa galduko du.

– 7. artikulua. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Aiarako Kuadrillako euskara teknikariek aztertu eta balioetsiko dituzte eskaerak, eta txosten bat egingo dute, zeinaren berri emango baitzaio Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordeari. Egokia iritziz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake Aiarako Udalak, eskaerak aztertu edo balioesteko.

Behin betiko ebazpena hartzea Aiarako Udaleko alkate-lehendakariari dagokio. Erabakiak laguntza eman edo ukatuko du, eta ukatuz gero, horren arrazoia jasoko du. Ebazpena edozein dela ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako kasuetan eta moduan aurkaratu ahal izango da.

– 8. artikulua. Dirulaguntzaren muga

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik xede bererako lortutakoak barne, ezingo du inola ere gainditu onuradunak egindako ikastaroaren kosta. Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordeak onetsitako dirulaguntza berraztertu ahal izango du, beste erakunde batzuek beren laguntzak eman ondoren, edozein motatako gainfinantzaketa galarazteko.

– 9. artikulua. Kontrola

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskatzeak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko. Onuraduna behartuta dago ikuskatze horretan laguntzera, eskatutako datuak emanez.

Arespalditza, 2024ko irailaren 13a

Alkatea

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.02

EUSKARA IKASTEKO ETA EUSKARA MAILA HOBETZEKO DIRULAGUNTZAREN ESKAERA
SOLICITUD DE AYUDAS PARA EL APRENDIZAJE Y MEJORA DEL EUSKERA

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA / PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD				
1. abizena / 1.º apellido	2. abizena / 2.º apellido	Izena / Nombre	NAN-AIZ-Pasaportea / DNI-NIE-Pasaporte	
<input type="checkbox"/> Interesduna naiz / Soy la persona interesada		Sexua / Sexo	Giz. / Hom. <input type="checkbox"/>	Ema. / Muj. <input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> Hau ordezkatzan dut: / Represento a:				
Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaportea-IFZ:/DNI-NIE-Pasaporte-NIF del representado/a:				
JAKINARAZPENAK / NOTIFICACIONES (según Ley 39/2015 Legearen arabera)				
<input type="checkbox"/> Elektronikoki (ziurtagiri digitala behar da) / Electrónicamente (se necesita certificado digital)				
E-posta (abisuetarako) / E-mail (para avisos)				
<input type="checkbox"/> Posta arruntaz / Por correo ordinario				
Kalea / Calle	Zk. / N.º	Solairua/Piso	Aldea / Mano	Telefonoa(k) / Teléfono(s)
P.K. / C.P.	Herria / Municipio	Probintzia/ Provincia	E-posta / E-mail	
BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS				
Kontu korrontearen IBAN kodea / Código IBAN de la cuenta				

Adierazten du / Expone

Euskara ikasteko edota alfabetatzeko ikastaroa eginduela jarraian adierazten den moduan:

Que ha realizado un curso de aprendizaje o alfabetización de euskara de acuerdo con los siguientes datos:

Euskara ikasteko ikastaro / Curso de aprendizaje de euskara	<input type="checkbox"/>	Barnetegia / Barnetegi	<input type="checkbox"/>
Hasierako data / Fecha inicio		Bukaerako data / Fecha finalización	
Maila (A1etik C2ra) / Nivel (A1 a C2)		Matrikularen prezioa/Importe matrícula	
Ikastetxea / Centro de enseñanza			

- Aiarako Udalak euskara ikasteko ematen dituen laguntzak arautzen dituen araudiak ezarritako baldintzak betetzen dituela.
- Helburu bera izanik, beste instituzio edo erakunderen bati laguntza eskatu al diozu?
- Que cumple los requisitos establecidos en la Normativa Reguladora de la concesión de ayudas del Ayuntamiento de Ayala para el aprendizaje del euskara.
- ¿Ha solicitado ayuda o subvención con el mismo fin a otras Instituciones o Entidades?

EZ / NO	<input type="checkbox"/>			
BAI / SI	<input type="checkbox"/>	(Eskaeraren eta erantzunaren fotokopiatu behar dira) (Debe adjuntar copia de la solicitud y de la resolución)		
Instituzio edo erakundea / Institución o entidad:				
Erantzuna / Resolución:	<input type="checkbox"/>	Emanda Concedida	Emaniko kopurua Importe concedido	
		<input type="checkbox"/>	Ukatua / Denegada	
		<input type="checkbox"/>	Erantzunaren zain / A la espera de resolución	

Eskatzen du / Solicita

Aiarako Udalak euskara ikasteko ematen dituen laguntzak arautzen dituen araudiak ezarritakoari jarraituz, dagokidan dirulaguntza. La subvención correspondiente de acuerdo con la Normativa Reguladora de concesión de ayudas del Ayuntamiento de Ayala para el aprendizaje del euskara.

--

Data/Fecha: _____

Sinadura Digitala (klik eransteko) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F ✉ La Iglesia, 3 - 01476 Respaldiza - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala



Aurkeztu behar diren agiriak:	Documentos que se deben presentar:
<p>a) Eskabide inprimakia eskatutako datu guztiakin, beste dirulaguntza eskaerak egoteareneko ez egotearen adierazpena barne eta, egonez gero, eskaeraren fotokopia erkatua. Eskaerakerantzuna izan badu, ebazpenaren fotokopia erkatua (onartutako kopurua edo ukatzea); ebazpenarenzain egonez gero, horri buruzko adierazpena.</p> <p>b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.</p> <p>c) Homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroaren jatorrizko ziurtagiriak: ikasturteanemandako ikasmaila bakoitzari buruzko ezaugarri hauek adierazi beharko dituzte: hasteko eta amaizteko data, emandako eta ikaslea egondako eskola-orduen kopurua, egondako orduen kopuruekin, matrikularen kostua, emandako maila bakoitzeko xehatuta, eta dagokion maila gainditu den ala ez. Barnetegi batera joan bada, kostua honela banandu beharko da: aldatuetatik, eskolen kostua, guztira (emandako maila bakoitzaren kostua xehatuta), eta bestetik, ostatuaren eta mantenuaren kostua.</p> <p>Udalerrian bertan udalaren partaidetza eratutako ikaskuntza taldeen ziurtagiriak, Aiara Kuadrillako euskara teknikariek eginak: adierazi beharko dituzte ikastaroaren hasierako amaiera egunak, emandako ikasmak, emandako eta ikaslea egondako eskola-orduen kopurua, egondako ordu guztien ehunekoarekin, matrikularen kostua, guztira, eta dagokion maila gainditu den ala ez.</p> <p>d) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen jatorrizko agiria, banku entitate batek emana.</p> <p>e) Administrazio aginpidedunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, Datuak kontsultatu - Egiaztatzearen kontraktasuna dokumentua. (I. Eranskina)</p> <p>f) Ikastaroak iraun duen aldiko lan bitzitza egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak egina, ikastaroaren erdia baino gehiagoan langabezian egon izanagatik diruzlagundu daitekeen gastuaren ehuneko 100 jaso nahi duten eskatzaileentzat, oinarri 3 artikuluen arabera.</p>	<p>a) Impreso de solicitud con todos los datos solicitados, incluyendo declaración sobre la existencia o no de otras peticiones de subvención y, en su caso, fotocopia compulsada de la petición. Si la petición ha recibido respuesta, fotocopia compulsada de la resolución (cantidad concedida o denegación); si se está a la espera de resolución, declaración en tal sentido.</p> <p>b) Fotocopia del Documento de Identidad de la persona solicitante.</p> <p>c) Certificados originales del euskaltegi o centro de autoaprendizaje homologado: deberán indicar las siguientes características referentes a cada nivel impartido durante el curso: fecha de inicio y fin, número de horas lectivas impartidas y asistidas con el correspondiente porcentaje de asistencia, así como el coste de la matrícula desglosado por cada nivel impartido y superación o no del correspondiente nivel. En el caso de haber asistido a un barnetegi, el coste deberá de presentarse desglosado de la siguiente manera: por un lado, el coste total de las clases (desglosando a su vez el coste de cada nivel impartido), y, por otro lado, el coste del alojamiento y manutención.</p> <p>Certificados originales de los grupos de aprendizaje en el propio municipio con la participación del Ayuntamiento, emitidos por el personal técnico de euskera de la Cuadrilla de Ayala: deberán indicar la fecha de inicio y fin del curso, niveles impartidos, número de horas lectivas impartidas y asistidas con el correspondiente porcentaje global de asistencia, así como el coste total de la matrícula y superación o no del correspondiente nivel.</p> <p>d) Justificante original de entidad bancaria de pago de matrícula.</p> <p>e) Certificado acreditativo de estar al corriente de pago de los impuestos de la Hacienda Foral y con la Seguridad Social relativos al solicitante, o en su caso, documento de Verificación de datos - Oposición a consulta. (Anexo I)</p> <p>f) Documento acreditativo de la vida laboral en el período de la realización del curso, expedido por la Tesorería de la Seguridad Social, en el caso de aquellos solicitantes que, por haber estado más de la mitad del curso en situación de desempleo, tengan prioridad para optar a recibir el 100 por ciento de la cuantía, según el artículo 3 de las bases.</p>



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala



Aiara
2030

3.02 EUSKARA IKASTEKO ETA EUSKARA MAILA HOBETZEKO DIRULAGUNTZAREN ESKAERA
SOLICITUD DE AYUDAS PARA EL APRENDIZAJE Y MEJORA DEL EUSKERA

I. ERANSKINA / ANEXO I

Datuak kontsultatu - Egiaztatzearen kontraktasuna
Verificación de datos - Oposición a consulta

Aiarako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak bere esku dituen datuetan, zuk berariaz kontraktorik esan ezean (**kasu horretan dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu**).

Egiaztapen horren **aurka** bazaude, **markatu X batez**

El Ayuntamiento de Ayala, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos que obren en poder de la Administración, salvo que usted se oponga expresamente (**en cuyo caso deberá aportar la documentación**).

Si usted se **opone** a dicha verificación **marque con una X**

DATUAK EDO DOKUMENTUAK
DATOS O DOCUMENTO

UKO EGITEN DIOT
ME OPONGO

ARRAZOIA
MOTIVO

Ogasunarekin ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria (AFA) / Certificado de hallarse al corriente de pagos con Hacienda (DFA)

Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria / Certificado de estar al corriente de pagos con la Seguridad Social

Izen - abizenak /

Data / Fecha:

Sinadura Digitala (Klik eransteke) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual